

# Hamaika Telebista: tokiko hedabideen habiatik hegoak astintzen

(Hamaika TV: flying from the nest of local television)

Nerekan Umaran, Amaia<sup>1</sup>; Garai Artetxe, Estitxu<sup>2</sup>  
Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Gizarte eta Komunikazio Zientzien  
Fak. Ikus-entzunezko komunikazio eta Publizitate Saila.  
Sarriena auzoa, z/g. 48940 Leioa  
amaia.nerecan@ehu.eus<sup>1</sup>; estitxu.garai@ehu.eus<sup>2</sup>

Jaso: 2013.06.11

BIBLID [1137-4462, eISSN 1988-3935 (2013), 14; 107-124] Onartu: 2013.11.06

---

*Ikerketa honen egitekoa digitalizazioarekin batera jaiotako Hamaika Telebistaren sorrera eta garapena aztertzea da. Ikerlanaren ondorio nagusiaren arabera, Hamaika Telebistaren hasierako asmoa zen tokiko estaldura gaindituko zuen telebista bakarra sortzea, baina egitasmoa martxan jartzeko aukera tokiko telebistaren habian topatu zuen. Barruti askotan lizentziak lortu arren, oraindik bide beretik dihardu, autonomia-erkidego osorako euskarazko telebista bakarra sortzeko hegoak astintzen.*

*Giltza Hitzak: Hamaika Telebista. Telebista. Digitalizazioa. Tokiko. Euskara.*

*El objetivo del estudio es analizar el nacimiento y desarrollo de Hamaika Telebista, surgida de la mano de la digitalización. Según la conclusión principal del estudio, el propósito inicial de Hamaika Telebista era crear una televisión única que fuera más allá de la cobertura local, pero la posibilidad de poner en marcha el proyecto le llegó de la mano de la televisión local. A pesar de lograr licencias en muchos distritos aún sigue igual, batiendo las alas para crear la única televisión en euskera para el conjunto de la comunidad autónoma.*

*Palabras Clave: Hamaika Telebista. Televisión. Digitalización. Local. Euskera.*

*Le but de cette recherche est d'analyser la création et le développement de Hamaika TV. La principale conclusion montre que l'intention initiale était de créer une Hamaika TV unique au niveau régional, mais les promoteurs ont opté pour mettre en place le projet dans le nid de la télévision locale. Malgré le fait qu'ils ont atteint licences dans de nombreuses démarcations, de nos jours, elle continue dans la même ligne, volant à une télévision en langue basque dans toute la Communauté Autonome.*

*Mots-Clés : Hamaika Telebista. La télévision. La numérisation. Local. Le basque.*

## 1. SARRERA ETA IKERKETAREN DISEINUA

Lege-hutsune luzearen ostean, digitalizazioaren aitzakia teknologikoa baliatu zen tokian tokiko telebistak arautzeko (Badillo, 2003). Garai horretan zehaztutako telebista-egitura ordea, ez da neutroa, interes ezberdinen esanetara eraikitako mapa baizik. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak telebista autonomikoa ETBren eremu babestu bihurtzea hobetsi zuen, eta agente pribatuak esparru lokalean aritzera mugatu zituen (Guimerà, 2011). Era berean, digitalizazioarekin, gaztelania hutsezko telebista estatalen gorakada handia etorriko zela aurreikusitako Eusko Jaurlaritzak, eta, horregatik, euskarazko tokiko telebisten sorkuntza lehenetsi zuen.

Testuinguru horretan jaioko da hain zuzen ere, Hamaika Telebista. Egitasmoa martxan jartzeko tradizio-politiko zeharo ezberdinetatik datozen bazkideak bildu ziren: Euskarazko Komunikazio Taldea (EKT); Euskal Komunikabideak Hedatzeko Elkartea (EKHE); Corporación Multimedia del Norte (CMN); EUSKALTEL telekomunikazio-konpainia; ELKAR argitaletxea eta BAINET ekoizpen etxea. Ordura arte, ezinezko zirudien aipatu eragileek elkarlanean komunikazio-proiektu bat sortzea.

Hamaika telebistak dituen bereizgarri horiek guztiak kontutan hartuta, erakargarri iritzi diogu egitasmoaren kasu azterketa egiteari. Lehenengo helburua sortze-prozesua aztertzea izango da, eta, horrekin batera, bultzatzaileek bertan parte hartzeko izan zituzten arrazoiak arakatzeko. Bestalde, telebistakateak egun duen jarduna ikertzeko, proiektuaren enpresa-egitura, sortutako kanalak, programazioa eta audientzia aztertu ditugu. Horratx, beraz, ikerketaren bi helburu nagusiak: sorreraren nondik norakoak zehaztea eta gaur egungo egoera deskribatzea.

Helburu horiek erdiesteko metodologiari dagokionez, teknika ezberdinak baliatu ditugu. Lehenik eta behin, sorreraren testuingurua zedarrizteko, digitalizazioari buruz idatzitako liburu eta artikuluko zientifikoak arakatu ditugu, baita garai hartan onartutako arauak ere. Orobat, egoki iritzi diogu sakoneko elkarriketen metodologia kualitatiboa erabiltzeari, horixe baita Hamaika Telebistaren sortze-prozesuan parte hartu zuten eragileen pertzepzioa ezagutzeko bidea. Batetik, digitalizazioaren atala osatzeko, Ramon Zallo elkarrizketatu dugu, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko aholkulari baitzen EAEko tokiko telebistaren digitalizazio-prozesua arautu zenean. Bestetik, Hamaikaren eragileen motibazioak zeintzuk izan ziren ezagutzeko, enpresa bakoitzetik ordezkari bat elkarrizketatu dugu. Elkarrizketatutako guztiek proiektuaren sorrera prozesuan parte hartu zuten, eta gaur egun, Hamaika Telebistaren Administrazio Kontseiluko ordezkariak dira.

Hamaika Telebistaren egungo jardura aztertzeko, berriz, Zuzendari Nagusi den Iñaki Uriarekin bilera ezberdinak egiteaz gain, garrantzitsua izan da datu-bilketa eta kanal ezberdinen egoitzetan *in situ* egindako behaketa-lana. Era

berean, astebeteko programazioaren egitura orokorrari erreparatu diogu<sup>1</sup>, eta bertan agertzen diren ikus-entzunezko edukien sailkapena egin dugu. Lehenengo sailkapena jatorriaren arabera izan da: Hamaika Telebistak berak ekoiztutako saioak, barne produkziokoak, eta kanpo produkziokoak bereizi ditugu, bai eta berremanaldiak eta estreinako programak (lehenengo aldiz emittitzen direnak). Bestetik, programazio-taulako telebista-saioak generoen arabera sailkatzeko, Kantar Media<sup>2</sup> erabiltzen duen sailkapena jarraitu dugu. Azkenik, gaur egungo egoeraren azterketa borobiltzeko, Hamaika Telebistaren audientziaren azterketa egin dugu, Iruñean egoitza nagusia duen CIESen (Instituto de Estudios de Opinión, de Mercado y Socioeconómicos) datuen bidez.

## **2. DIGITALIZAZIO PROZEDURA**

### **2.1. Tokiko Telebista Digitalaren Plan Tekniko Nazionala**

Hamaika Telebistaren sorrera hertsiki lotzen zaio digitalizazio prozesuari. Horregatik, atal honetan, digitalizazio prozesu hori arautzerakoan hartutako erabakiak izango ditugu aztergai: Tokiko Telebista Digitalaren Plan Tekniko Nazionala eta 190/2006 Dekretua.

Espainiako Gobernuak 2004an onartutako Tokiko Telebista Digitalaren Plan Tekniko Nazionalak tokiko telebisten muga geografikoak birdefinitu zituen. Emisio-esparrua LTDarekin jaiotako unitate berria izango zela ezarri zuen: barrutia (Corominas et al., 2007:72).

Zalantzarria dugu autonomia-erkidegoak barrutien arabera banatzearen egokitasuna. Izan ere, barrutien banaketa oso heterogeneoa zen. Ezberdintasun nabariak zeuden batetik bestera. Barruti batzuk handiak ziren, udalerrri batek baino gehiagok osatzen baitzituzten; beste batzuk, alta, txikiagoak ziren eta dentsitate gutxiko herriak hartzen zituzten bere baitan. Hala ere, berezitasun horiek ez ziren kontuan hartu, eta barruti guztietan lau tokiko telebista martxan jartzeko aukera finkatu zen. Gainera, zailago bilakatu zen emisio-eremu berri horietan telebista publiko lokalak sortzea, kasu askotan, joera politiko ezberdinetako udalak ados jarri behar zirelako lizentziak eskuratu ahal izateko. Horren ondorioz, ordura arte tokiko telebista analogikoek udalerriekin zuten lotura hautsi zen.

---

1. 2011ko urriko aste oso bat hartu eta aste horri dagokion programazio-taula aztertu da. Urriko aste hori (urriak 17-23) hautatzeko arrazoia emisio-erritmoari lotuta dago, izan ere, uda partean emisioetan aldaketak jasaten dituzten kanalek ordurako ohiko erritmoa berreskuratu dute.

2. Kantar Media audientzia-datuak biltzen dituen enpresa da. 2010. urtera arte Taylor Nelson Sofres izena zuen.

EAE 15 barrutitan zatitu zen: Araban bi, Bizkaian sei eta Gipuzkoan zazpi<sup>3</sup>. Aipatu dugunez, teknologia digitalaren etorrerarekin, barruti horietako bakoitzak 4 telebista kanal izateko aukera zuen. Guztira, beraz, EAEn, 60 telebista-kanal digital izateko aukera zegoen, 8 Araban, 24 Bizkaian eta 28 Gipuzkoan.

## 2.2. 190/2006 Dekretua

Arestian aipatu bezala, Tokiko Telebista Digitalaren Plan Teknikoa jarri zuen abian Espainiar Estatuko Gobernuak. Oinarrizko arauak Madriletik finkatuta zetozen, baina garapena autonomia-erkidego bakoitzeko gobernuari zegokion. Zeregin horretan, Eusko Jaurlaritzak lur-uhin bidezko tokiko telebista-zerbitzua arautzen duen 190/2006 Dekretua onartu zuen urriaren 3an. Tokiko telebista digitalak EAEn nolako ezaugarriak izango zituen xedatzen zen bertan (Gómez Rubio, 2010).

Oro har, honakoak ziren telebista lokal digitalari egotzen zitzaizkion ezaugarri nagusiak: gertutasuna, hizkuntzaren normalizaziorako tresna izatea, euskal kultura sustatzea eta euskal ikus-entzunezko industria promozionatzeko bitartekoa izatea. Gauzak horrela, lizentziak lortzeari begira, euskara zen puntu gehien lortzeko aukera eskaintzen zuen irizpidea<sup>4</sup> (Guimerá, 2011: 25).

Barruti bakoitzeko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta gutxieneko euskara-kuotak ezarri ziren<sup>5</sup>. Udalek kudeatutako tokiko telebisten programazioaren %50, gutxienez, euskaraz emitituko zen; agente pribatuek kudeatutako telebistei dagokienez, programazioaren %20. Eguneroko euskararen erabilerak ehuneko horiek gainditzen zituen barrutietan, berriz, elebidun-indizearen baliokide zen euskarazko programazioa eskaini beharko zen.

## 2.3. Tokiko telebistaren pribatizazioa

190/2006 Dekretua onartu zen urtearen bukaeran, 2006ko abenduaren 28an, Eusko Jaurlaritzak deialdia egin zuen tokiko telebisten lizentziak eskuratzeko lehiaketa publikorako. Espainiar Estatuko legeak ezartzen zuen legeaz, udalek lehentasuna zuten lur uhin bidezko tokiko telebista-zerbitzua eskaintzeko. Hala ere, teknologia digitalak ahalbidetzen zituen 60 kanal horietatik gehienez 15 izan zitezkeen publikoak (kanal bana barruti bakoitzeko). Bestalde, 190/2006 Dekretuan adierazten zenez, barruti batean kudeaketa publikorako eskabide bat baino gehiago egonez gero, salbuespen gisa, aukera zegoen udalei bigarren kanal digital bat gordetzeko.

---

3. Araban: Audio eta Gasteiz. Bizkaian: Barakaldo, Bermeo, Bilbo, Durango, Mungia eta Getxo. Gipuzkoan: Beasain, Eibar, Arrasate, Donostia, Tolosa, Zarautz eta Irun.

4. Gehienez lor zitezkeen 500 puntutatik 110 (%22).

5. Eremu bakoitzeko elebidun kopurua neurtzeko Eustaten indizea erabili zen.

Enpresa pribatuek izandako epe bera izan zuten udalek eskaerak aurkezteko, baina lizentzia horiek ez ziren lehiaketa bidez esleituko, gobernuak zuzenean emango zizkien lizentziak. Udalek kudeatutako tokiko telebista publikoari lehentasuna eman nahian, Eusko Jaurlaritza udal ezberdinekin harremanetan jarri zen. Baina, tokiko telebista digitalaren nondik norakoak eta tokiko telebista publikoaren garrantzia azaldu arren, Donostiako Udala izan zen interesa agertu eta erreserba egin zuten bakarra<sup>6</sup>.

Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzak udalentsako gordetako kanalak zeharkako kudeaketa-erregimenaren bidez esleitzea erabaki zuen. Ondorioz, tokiko telebista digitala ekimen pribatuaren esku geratu zen; banatutako lizentzien artean, bakarra izan baitzen publikoa.

## 2.4. Telebista autonomikoa: ETBren eremu babestua

Telebista autonomikoari dagokionez, berriz, monopolio publikoa izatea erabaki zen, ETBren eremu babestua. Autonomiaren esparruari zegozkion lizentziak lortzeko prozesua ez zen martxan jarri. Teknikoki bi multiplex autonomiko izateko aukera egon bazegoen, hau da, 8 telebista-kanal digital martxan jar zitezkeen; baina Eusko Jaurlaritzak ez zuen telebista-kanal autonomiko horiek kudeatzeko aukera eskaini. Multiplex bakarra martxan jartzea hobetsi zuen, eta multiplex horren lau kanalak ETBren esku utzi zituen.

Digitalizazio prozesua tokiko telebistekin hasi zuen jaurlaritzak, eta “gerako” utzi zuen autonomiaren eremua hartuko zuen telebista digitalaren antolamendua. Estrategia horrekin, tokiko telebistei merkatuan egonkortzeko aukera eskaintzeaz gain, denbora irabazi zuten autonomia-erkidegoko eremuan zer nolako kudeaketa egingo zen prestatzeko. Hortaz, maila autonomikoan aritzeko bigarren multiplexaren kudeaketa *sine die* atzeratzea erabaki ostean egin zen tokiko telebista digitala kudeatzeko lizentzien banaketa.

## 2.5. Tokiko telebista digitalen lizentzien esleipena

Teknologia digitalak bide eman zuen aro analogikoko telebistek emisioekin jarraitu eta beste hainbeste proiektu berri martxan jartzeko. Hala ere, lizentzia ia guztiak gutxi batzuen artean banatu ziren, eta aro analogikoan nagusi zen kontzentrazioa areagotzea besterik ez zuen ekarri. Zehatz-mehatz, 29 enpresen eskutan geratu ziren banatutako 58 lizentziak, baina enpresa horien gehiengoa lau komunikazio talderena zen: Prisa, Vocento, Local Media eta egoera horretan agertu berri zen Hamaika Telebista Hedatzeko Taldearena. Izan ere,

---

6. Hasiera batean, zazpi udalek baieztatu erantzuna eman zuten: Gasteiz, Arrasate, Donostia, Zarautz, Irun, Barakaldo eta Getxoko barrutiei zegozkienak. Baina, proiektuaren txostena aurkeztu behar izan zutenean, bik bakarrik (Barakaldo, Portugaleta eta Santurtziko Udalek Barakaldoko barrutian emititzeko, eta Donostiako Udalak Donostiako barrutian emititzeko) aurkeztu zuten. Gainera, kontratua sinatu baino lehen Barakaldo, Portugaleta eta Santurtziko Udalek erabaki zuten Barakaldoko barrutian telebista-zerbitzua zuzenean kudeatzeari uko egitea.

horrenbeste tokiko telebista digital martxan jartzeko lizentziak banatuko zirela ikustean, talde handien estrategia barruti guztietara aurkeztea izan zen, asmoa baitzen barruti bakoitzeko lizentzia bana eskuratzea. Antolabide horrekin, halaber, zaila zen eginkizun sozialeko tokiko telebista independente txikiek aurrera egiteko aukera izatea.

Hortaz, lau kolore gailendu ziren tokiko telebista digitalaren agertoki “berri” horretan, komunikazio-talde handien koloreak. Enpresa independenteek (talde horietara lotuta ez zeuden enpresek) guztira banatutako 58 lizentzia horietatik 3 besterik ez zituzten lortu. Gainerakoak, % 94,82, aipatu talde indartsu horien esku geratu ziren: Prisak eta Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeak 15na lizentzia lortuko zituzten<sup>7</sup>, Local Mediak 13 lizentzia, eta Vocentok, berriz, 12.

Era horretan, gailendu ziren tokiko telebista analogikoarekin dagoeneko zeuden estatuko talde handiak. Lizentzia bana lortu zuten barruti bakoitzeko, Vocentok hiru barruetietan eta Local Mediak bi barrutien izan ezik. Alegia, talde horiek EAE osoan izango zuten presentzia, barruti guzti-guztietan. Ondorioz, tokiko telebistak izan arren, euren estaldura autonomiakoa zen. Hala, paradoxikoa gerta daiteke tokiko telebista digitalean estaldura autonomikoa izan dezaketen lau talde gailentzea, aukera egonik maila autonomikoan lau telebista-kanal gehiago martxan jartzeko (“lotan” dagoen bigarren multiplex hori “esnatuz” gero).

**1. taula**  
**Barrutien araberako LTD lokalaren emakidadun pribatuen banaketa**

	Prisa	Hamaika	Local Media	Vocento	Tele 7	Euve
Laudio	1	1	1	1		
Gasteiz	1	1		1		1
Beasain	1	1	1	1		
Eibar	1	1	1	1		
Arrasate	1	1	1	1		
Donostia	1	1		1		
Tolosa	1	1	1	1		
Zarautz	1	1	1	1		
Irun	1	1	1	1		
Barakaldo	1	1	1		1	
Bermeo	1	1	1	1		

7. Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeak berez 10 lizentzia bakarrik eskuratu zituen, baina, Tokiko elkarteetan biltzen diren euskarazko bost tokiko telebistekin sarea sortzeko intentzio-akordioa sinatu zuenez, aurrerago ikusiko dugun moduan, ikerlan honetan talde berean danak kokatzea erabaki da.

	Prisa	Hamaika	Local Media	Vocento	Tele 7	Euve
<b>Bilbo</b>	1	1	1	1		
<b>Durango</b>	1	1	1	1		
<b>Getxo</b>	1	1	1		1	
<b>Mungia</b>	1	1	1			
<b>Guztira</b>	<b>15</b>	<b>15</b>	<b>13</b>	<b>12</b>	<b>2</b>	<b>1</b>

Iturria: Guimerá-ren ikerlana (2011) oinarri hartuta, egileek egindako taula.

### 3. HAMAIKA TELEBISTAREN KASU AZTERKETA<sup>8</sup>

#### 3.1. Lehenengo arrautza: Hamaika Telebista Hedatzeko Taldea

Hamaika Telebista Hedatzeko Taldea 2006 urtean sortu zen, euskarazko telebistak eta komunikabideak hedatzeko egitasmo gisa. Komunikazio-taldea honen sustatzaileak, esan bezala, esparru ezberdinetatik datozen sei enpresa dira:

CMN - Corporación Multimedia del Norte (Deia - Diario de Noticias de Navarra - Diario de Noticias de Álava - Noticias de Gipuzkoa).

EKHE - Euskal Komunikabideak Hedatzeko Elkarte (Gara - Le Journal).

EKT - Euskarazko Komunikazio Taldea (Berria - Hitzia).

ELKAR - Liburu eta disko ekoizpen etxea.

EUSKALTEL - Telekomunikazio operadore globala.

BAINET - Telebista eta zine ekoizpen etxea.

Lehenengo begiratuan antzeman daiteke enpresa horiek komunean ezer gutxi dutela. Elkarlana posible izan zen, batetik, giro politikoak horretarako bide ematen zuelako<sup>9</sup>, eta, bestetik, hasiera-hasieratik helburua argi zegoelako: barruti bakoitzean euskara hutsez emitituko zuen telebista bat egongo zela bermatzea (Uria, 2010). Halarik ere, kontutan hartu beharrekoa da aro analogikoan bazirela euskara hutsezko zenbait tokiko telebista. EAEn, zehazki, bost

8. Hamaika Telebistaren kasu azterketari dagozkion datuak 2011n bildu ziren, urte horretan garatu baitzen landa-lana. Zehazki, 2012ko otsailaren 12an bukatu zen kasu azterketari dagokion datu-bilketa.

9. 2006ko martxoaren 22an, ETAK "su-eten iraunkorra" iragarri zuen eta bake-prozesuari hasiera eman zitzaion. EAJK, PSE-EEk eta Batasunak bilerak egin zituzten Loiolako Santutegian, eta Espainiako Gobernua ETArekin batzartu zen Genevan. Giro politiko horrek lagundu zuen ideologia ezberdineko komunikazio-taldeak elkarlanean aritzea.

zeuden, eta Tokiko Elkartearen baitan egiten zuten bat<sup>10</sup>: Oizmendi Telebista, Goiena Telebista, Goierri Telebista, 28 Kanala eta Erlo Telebista. Hala, Hamaika Telebistak barruti horietara ez aurkeztea erabaki zuen, dagoeneko tokiko telebistagintzan ziharduten eragile horien lehia zuzena ez bihurtzeko. Halaber, intentzio-akordioa sinatu zuen euskarazko telebista lokal horiekin etorkizunean sarea sortzeko (Altuna, 2010).

Hamaika Telebista Hedatzeko Taldearen Zuzendari Nagusia Iñaki Uribe da eta administrazio-kontseiluan ordezkari bat dago bazkide bakoitzeko. Nahiz eta hasiera baten administrazio-kontseiluaren burua bi urtean behin txandakatuko zela adostu, oraindik ere hasierako osaketa mantentzen da: Iñaki Alzaga (CMN) da presidente, Joanmari Larrarte (EKT) presidenteorde eta Gorka Altuna (EKHE) idazkari.

Egitasmoaren aurkezpen ekitaldia 2006ko irailaren 19an egin zen Bilbon, eta lehendabiziko lana Eusko Jaurlaritzak zabalduz tokiko telebista digitalaren lehiaketan parte hartzeko proiektuak prestatzea izan zen. Aurretik esan bezala, talde berriak zuzenean 10 lizentzia lortu zituen, baina ez Hamaika Telebista Hedatzeko Taldearen izenpean. Sei enpresa ezberdin sortu zituen: Araba Ikusentzunezkoak, S.A. (Laudio eta Gasteizeko barrutietarako); Arno Ikusentzunezkoak S.L. (Eibarren); Donostialdea Ikusentzunezkoak S.A. (Donostian); Oarsoaldea-Bidasoa Ikusentzunezkoak S.L. (Irunen); Urkiola Ikusentzunezkoak S.L. (Durangon); eta Bilbo Handia Ikusentzunezkoak S.A.k (Bilbon, Barakaldon, Getxon eta Mungian).

Komunikazio-taldeak sortutako sei enpresa horiek administrazio kontseilu berezitua izango zutela erabaki zen. Enpresa bakoitza osatzerakoan tokian tokiko bazkideak bilatu zituzten, parte hartzea sustatzeko asmoz. Beraz, egitura independentea daukaten enpresak dira, eta Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeak enpresa horien zati bat besterik ez du, portzentajea oso handia bada ere.

### **3.2. Eragileen motibazioak eta perspektibak**

Euskara sustatzeko nahia oinarrian bada ere, Hamaika Telebistako eragileek bestelako motibazioak ere izan zituzten elkarlanean jardun eta egitasmoan parte hartzeko.

Esate baterako, ordura arte gehien bat prentsa idatzian aritutako EKT, EKHE eta CMNrentzat interesgarria zen euren jarduera dibertsifikatzea, ahalik eta euskarri gehienetan egotea, alegia. Hala, Hamaikan sartzeak telebistara salto egiteko aukera eskaintzen zien. Euskaltelen kasuan, berriz, enpresaren posizionamentu komertzialarekin bat zetorren Hamaika Telebista egitasmoan parte-hartzea. Euskaltelen estrategian zutabe garrantzitsua da bertoko enpresa euskaldunaren irudia, eta Hamaikak irudi hori indartzeko aukera ematen zion (Astorkiza, 2010).

---

10. Tokiko Elkarteak 2004an sortu zen eta bertan euskara hutsez emititzen duten tokiko telebista ezberdinak biltzen dira, hala nola: Oizmendi TB, Goi TB, Goierri TB, 28 Kanala eta Erlo TB. Horiekin batera Nafarroan diharduten Ttipi-Ttapa (2009an bere jarduna eten zuena) eta Xaloe TB daude.



Gainera, denek argi zuten euskarazko telebistak martxan jartzeko gainontzeko eragileekin biltzea ezinbestekoa zela, bakarka ez baitzuten baliabide nahikorik. Horregatik, kaudimena zuten enpresak biltzen saiatu ziren. Halaber, aldez aurretik konfiantza zegoen enpresa horietako ordezkarien artean, elkar ezagutzen baitzuten. Horrek ere erraztu zuen elkarlanean aritzea (Alzaga, 2010).

Dena dela, elkartze-prozesuan funtsezkoena oreka mantentzea izan zen. Eragileen artean EKT, EKHE eta CMN egoteak ikuspegi abertzale ezberdinak ordezkaturik egotea ekarri zuen. Sozietatea eratzerakoan ere, oreka hori ez hausten saiatu ziren, eta ondo neurtu zuten eragile bakoitzaren parte-hartzea<sup>11</sup>. Hori horrela izanik, ikus-entzunezko talde honen jaiotzak balio kualitatibo handia izan zuen eragileen ustetan; lehendabizikoz, bat egin baitzuten aipatu hiru komunikazio-taldeek, *“erakutsiz, nolabait, aukerak badirela herri honetan gauzak elkarrekin egin eta bideratzeko”* (Larrarte, 2010).

### 3.3. Hamaika Bilbo eta Hamaika Donostia Telebista

Hamaika Bilbo Telebista izan zen taldeak martxan jarri zuen lehena, eta gaur egun, Hamaikak duen egoitzarik handiena. Lizentzia Bilbo Handia Ikus-entzunezkoak S.A. enpresaren bidez eskatu zuen. Sozietate Anonimo hori 2007an eratu zen, Ibaizabal Elkartearen<sup>12</sup> (%20) eta Hamaika Telebista Hedatzeko Taldearen (%80) eskutik. Sortu eta hilabete gutxira, Bilbo inguruko lau barrutietarako emisio lizentziak lortu zituen: Bilbo, Barakaldo, Getxo, eta Mungjako barrutietarako lizentziak, hain zuzen ere.

Hilabete batzuen buruan, 2008ko azaroaren 11n, egin zen Hamaika Bilbo Telebistaren jendaurreko aurkezpena, Bilboko Itsas Adar Museoan. Hala ere, udaz geroztik telebistak bazuen azpiegitura osoa eta lan-talde profesionala. Programazioa landu eta garatu ostean, 2009ko otsailean emititu zuen lehenengo aldiz, zehazki, otsailaren 9an hasi zen froga sisteman emititzen. “Bat eta Bat” izeneko magazinea izan zen Hamaika Bilbo Telebistako lehen ekoizpena. Arratsaldeko 19:00etatik 22:00etara ikusi ahal zen eta gero, programazioa osatzeko, euskarazko herri telebistek egindako saioak ere erabiltzen zituzten (Tokiko elkarrean biltzen diren telebisten programak, alegia). Emankizunak abiatzarekin batera, kapitala handitzeko kanpaina bultzatu zuten proiektua gizarteratu eta inbertsioei aurre egiteko. Egun, 600.000 euro arteko kapitala lortu du eta 380 akziodunek osatzen dute Bilbo Handiak Ikusentzunezkoak S.A.<sup>13</sup>.

Hasiera batean, Hamaika Bilbo Telebistak uhin bidez bakarrik emititzen zuen, baina, 2009ko ekainaren 12an, Euskaltelek eta Hamaika Telebistak

---

11. Hiru komunikazio-taldeak eta Euskaltelek %20, eta Baintet eta Elkarrek, berriz, %10.

12. Ibaizabal Mendebalde Kultur Elkartea euskarazko telebista kate bat bultzatzeko helburuarekin sortutako herri plataforma da. Gaur egun, Ibaizabal Telebista dauka martxan, internet bidez igortzen duen telebista-kate herrikoa.

13. Datu hauek Hamaika Telebistaren webgunean bertan jasotzen dira ([www.hamaika.tv](http://www.hamaika.tv)). Kontsulta: 2011ko abenduaren 16an.

hitzarmen bat sinatu zuten taldeko telebista digitalen seinalea EAE osora hedatzeko. Hala, emisio-eremua zabaldu, eta ordutik aurrera, Hamaika Bilbo Telebista Euskaltelen zuntz optikoa duten etxe guztietara heltzen da.

Hamaika Bilbo Telebistaren egoitza Bilboko Deustu auzoan dagoen pabiloi batean kokatuta dago, 200 metro karratu inguru ditu eta gune ezberdinetan banatuta dago: harrera, platoa, bilerak egiteko gela, zuzendariaren bulegoa, erredakzioa, erredakzio buruaren bulegoa, komertzialen gunea, errealizazio gela, material biltegia, kamerinoa eta *rack* gela. Hamabi dira Bilboko lan-taldea osotzen dutenak. Generoen arteko oreka eta gaztetasuna dira lan-talde horren ezaugarriak nagusienak. Guztira, 6 gizon eta 6 emakume daude, denak 35 urte baino gutxiagokoak. Baliabide teknikoek dagokionez, berriz, Hamaika Bilbo Telebistak punta-puntako ekipamendua dauka: ENG equipo ezberdinak (Panasonic P2 bideo-kamerak erabiltzen dituzte), Edius edizio-programadun 9 ordenagailu, eta platoa, bertan, bi kamera robotizatu multiproposito eta *telepromterra* duen estudioko kamera izanik.

Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeak abiatutako bigarren kanala, berriz, Hamaika Donostia Telebista izan zen. Enpresa hau 2007an eratu zen Hamaika Telebista Hedatzeko Taldearen eskutik, eta urte berean eskuratu zuen LTDaren Donostialdea eta Buruntzaldeako emisio-lizentzia. Baina, urte batzuk igaro beharke ziren lizentzia hori gauzatzeko, 2010ean jarri baitzen abian Hamaika Donostia Telebistaren emisioa. Egitasmoaren aurkezpena Miramar Jauregian egin zen, 2010eko apirilaren 15ean.

Baina, Hamaika Donostia Telebista jaio zela esatea ziur aski gehiegi esatea da. Telebista berri bat baino, Donostiakoa lurralde ordezkari bat baita. Berez, salbuespenak salbuespen, Hamaika Donostia Telebistak Bilboko seinale bera emititzen du. Are gehiago, orain dela gutxi arte, ez du egoitza propioirik izan, Gipuzkoa Telebistarekin egindako akordioa tarteko, egoitza eta ekipamendua partekatzen baitzituen<sup>14</sup>. Lan-taldea bera nahiko txikia da, 4 pertsonakoa. Zuzendari lanetan diharduen Naroa Iturriekin batera, bi kazetari eta komertzial bat daude. Nolabait, Hamaika Taldeak Donostialdeari erantzuna emateko bilatutako irtenbidea izan da hau. Horregatik, aurretik, Hamaika Donostia Telebista telebista berri bat baino, lurralde ordezkari bat dela esan dugu.

Zentzu honetan, adierazgarria da, Hamaika Telebistako Zuzendari Nagusiak egitasmoaren sortze-prozesuaren inguruan hitz egiterakoan azaldutakoa, alegia, euren nahia euskara hutsez emitituko zuen telebista bakarria sortzea zela, baina, autonomia mailako telebista hori sortzeko aukera legalik ez zegoenez, tokiko mailan aritzea erabaki zutela (Iñaki Uria, 2010). Hala, ahalik eta barruti gehienetan lizentziak lortzearen alde egin zuten, eta teoriarik 10 tokiko telebista ezberdin sortzeko konpromisoa badute ere, errealitatea gaur-gaurkoz oso bestelakoa da.

---

14. Landa-lana egin ostean, 2012ko apirilean, Donostiako Zuatzu parkeko Pia eraikinean inauguratu zuten egoitza berria. Ordutik aurrera bertan izango dira Zuzendariaren bulegoak, bai eta Hamaika Donostia Telebista bera.


### 3.4. Programazioaren azterketa

Esan bezala hortaz, Hamaika Bilbo Telebista eta Hamaika Donostia Telebista existitu arren, programazio-taula bakar bat dago. Barne produkzioa telebista bi horien lan-taldeen emaitza da. Gero, programa horiek kanpo produkzioarekin uztartu eta programazio-taula bakar bat diseinatzen da, kanal bietan emititzen dena. Hala, programazio-arduradun bakarra dago, Bilboko egoitzan dagoen Ane Zabala, hain zuzen ere. Zeregin horrekin batera, erredakzio buru lana ere betetzen du.

Gauzak horrela, ez dago Donostiako espresuki ekoiztutako programazio berezirik. Hala ere, Donostiako egoitzan programazio-taula bateratu hori osotzen duten telebista saio gutxi batzuk ekoizten dira, "Hamaikakoa" "Esatea libre" eta "Hurbilean" izeneko programak, alegia. Programa hauek Hamaika Telebistaren programazio orokorra osotzen dute, "Hamaikakoa" salbuespena izanik. Izan ere, astelehenetan, 22:00-23:00 bitartean, Hamaika Bilbon "Harrobia", Athletic-en inguruko saioa, emititzen den bitartean, Hamaika Donostian "Hamaikakoa", Errealaren inguruko programa, eskaintzen da. Gainerako saio guztiak, Bilboko egoitzan, zein Donostiako egoitzan ekoiztuak izan, kanal bietan aldi berean emititzen dituzte.

Hamaika Telebistak 24 orduz emititu arren, ordu-tarte jakin batean indarrak biltzen ditu. Hala, Hamaikak berak ekoiztutako barne produkzioa arratsalde-gau partean, *prime time*an, hau da, 20:30-24:00 tartean, biltzen du. Gero, programazio-taula osatzeko, tarte horretan bertan emititutako saioak berremittitzen ditu eta beste iturri batzuetatik lortutakoak ere tartekatzen ditu. Programazioa osatzeko baliatutako estrategiari dagokionez, ondorengo grafikoan ikus daiteke aste barruan emititutako saioen jatorria zein den:

1. grafikoa: Hamaika Telebistaren astegunetako programazioaren jatorria (berremanaldiak barne)



Iturria: norberak egindako grafikoa.

Grafikoan ikus dezagegunez, barne-produkzioko saioek, bataz beste, programazio-taularen %69 hartzen dute. Baina, portzentaje hori horren handia da berremanaldiak nagusi direlako, bai astegunetan, bai asteburuetan ere. Hamaika Telebistak programa bera behin baino gehiagotan emititzeak faktore ezberdinekin zerikusia izaten du. Alde batetik, kontuan hartu behar dugu Hamaika Telebistaren lan-taldea txikia dela. Guztira, Hamaika Bilboko langileak eta Hamaika Donostiakoak batuta, 16 pertsona dira. Beraz, Hamaikak berak ekoiztu ditzakeen emisio-orduak gutxi dira. Gainera, Hamaika Telebistaren aurrekontua ere oso mugatua da, publizitate sarrerak oso eskasak dira, eta hortaz, programak erosteko ahalmena txikia da eta lan-taldea handitzeko aukerak gutxi dira. Horri guztiari euskara hutsez emititzearen zailtasuna gehitu behar diogu. Horregatik, 24 orduko programazioa eraikitzea oso zaila da, saioak behin eta berriz emititu gabe.

Erabiltzen duen formula honakoa da: arratsalde-gau partean programatzen dira egun horretan ekoiztutako saioak, estreineko barne produkzioak, eta saio guzti horiek hurrengo egunean goizez berriz emititzen dira. Hortaz, goizeko emisioa aurreko eguneko emisioaren berremanaldia besterik ez da. Zehazki, astean zehar emititzen den eguneroko programazioaren %75a berremisioak dira eta asteburuetan, berriz, %100a. Behin eta berriz aireratzen diren programen artean, Hamaika Telebistaren programazio-taularen bizkarrezurra den "Bat eta Bat" saioa dago, 75 minutuko iraupena duen eguneroko magazin informatiboa.

Barne produkzioko saioen ostean, Tokiko elkartean biltzen diren euskarazko tokiko telebistekin elkartrukaturako programak dira Hamaika Telebistaren programazioan leku gehien hartzen dutenak (aste beteko programazio-taularen %13a).

Generoei dagokionez, berriz, Informazioa da oso modu nabarian nagusitzen dena, aste beteko programazio-taularen erdia baino gehiago hartzen baitu. Horren ostean, Kultura da portzentaia handiagoan aurkitzen dugun beste generoa (%16,6). Hamaikaren programazioan oso gutxitan aurkitzen ditugunak, berriz, Fikzioa eta Kirolak dira eta inongo presentziarik ez dutenak Infoshowa, Miszelanea eta Salmenta-saioak.

### **3.5. Audientzia**

Hamaika Telebistaren eguneroko bataz besteko audientzia 23.000 ikuslekoa izan zen autonomia-erkidegoan 2011 urtean. Ikusle gehien aste-barruko egunetan ditu, eta, bereziki, iluntzeko orduetan (estreinako barne-produkzioen emisio-orduetan, hain zuzen ere). Bestalde, ez da harrizkoa audientzia-daturik onenak (14.000 ikusle) Bizkaian izatea, lehenengo telebista bertan jarri batzen martxan, eta bertako edukiak baitira nagusi programazio-taulan.

Orain dela gutxi jaiotako telebista bada ere, lehendabiziko bi urtetan audientziak nabarmen egin du gora. 2010eko datuekin alderatuta, 8.000 ikusle gehiago izan ditu 2011n. Goranzko joera horrek, agerian uzten du, audientziari dagokionez behintzat, Hamaika Telebista egonkortzen dagoen telebista dela.

Ikuslearen profilari dagokionez, maila sozial erdi-altukoak dira gehien bat, eta ikasketa unibertsitarioak dituzte. Adin guztietako ikusleak izan arren, 14-45 urte arteko *targeta* da nagusi eta gehienak 10.000 biztanletik gorako herrietan bizi dira.

Gainerako tokiko telebistekin alderatuta, ikusle gehien dituen Telebilbao oraindik urrun badago ere (51.000 ikusle ditu-eta), Tokiko elkarteetan biltzen diren beste telebista lokalekin batera, 2011n, guztira, euskarazko tokiko kanalek 48.000 ikusle izan zituzten egunero.

**2. taula**  
**Tokiko telebistagintan diharduten taldeen audientzia EAEn**

TALDEA	TELEBISTA	AUDIENZIA	GUZTIRA
iLocal Media	Telebilbao	51.000 ikusle	62.000 ikusle
	Tele Donostia	8.000 ikusle	
	Televitoria	3.000 ikusle	
Hamaika Sarea	Hamaika Telebista	23.000 ikusle	48.000 ikusle
	Goiena Telebista	10.000 ikusle	
	Goierri Telebista	6.000 ikusle	
	Erlo Telebista	5.000 ikusle	
	28 Kanala	4.000 ikusle	
Vocento	Teledonosti	24.000 ikusle	38.000 ikusle
	Bizkaia TV	12.000 ikusle	
	Alava 7	2.000 ikusle	
zena)	Canal Bizkaia	11.000 ikusle	27.000 ikusle
	Canal Gasteiz	8.000 ikusle	
	Gipuzkoa Telebista	7.000 ikusle	
	Gipuzkoa Txingudi TB.	1.000 ikusle	
Independenteak	Tele 7	14.000 ikusle	14.000 ikusle

Iturria: norberak egindakoa, CIESen 2011ko datuetan oinarrituta.

#### **4. TELEBISTA DIGITALAREN EGITURA: BIDERAGARRITASUN ARAZOAK**

Lizentziak lortu zituzten gainontzeko komunikazio-taldeek Hamaika Telebistaren estrategia bera jarraitu dute, hau da, barruti gutxi batzuetan (oro har, hiriburuetan) telebista sortzea eta esleitutako gainerakoetan seinale hori

emititzea. Hala, lizentzia bat baino gehiago lortutako agenteek horrenbeste telebista martxan jartzea bideragarria ez denez, bat edo bi, gehienez, abian jarri eta seinale hori lizentziak lortutako barruti guztietara eramatearen alde egin dute.

Horrela beraz, EAEn, tokiko telebista digitalak kudeatzeko lizentziak banatu zirenean sortzen den mapa komunikatiboa ez da gauzatzen ari. Digitalizazio prozesuan, espektra agortzearen alde egin zen. Baina, teknikoki 60 tokiko telebista sortzeko aukera egon arren, banatutako lizentzia gehienak ez dira oraindik ere gauzatu, oso telebista gutxi abian jarri dira. Nolabait, barruti bakoitzean lau kanal egoteko lekuri ez dagoela agerian geratu da, ez baitago merkaturik, aukera komertzialik, eduki nahikorik, eta beharbada, ezta horrenbeste telebista lokal edukitzeko beharrik ere.

Gainera, bideragarritasun arazo horiek areagotu egin dira estatu mailako telebista digitalaren plangintza orokorra egin ostean. Izan ere, telebista estatutalen kopurua nabarmen biderkatu da eta horrek emisio-esparru txikiagokoei lekuri ez uztea suposatu du. Espainiar estatuko eremua hartzen duten telebista digitala lehenetsi da, hurbileko telebistagintzaren kalterako. Zentzu horretan, honako hau izan da digitalizazio prozesuaren ekarria: estatuko telebista komertzialen oligopolioa zabaldu da, eta agente eta kanal kopurua nabarmen handitu da. Ordura arte, autonomia-erkidegoek pisu handiagoa zuten; emisio esparru txikiagoko telebista kopurua estatu mailakoa baino nabarmen handiagoa baitzen. Egoera berri honetan, ordea, zaila dirudi teknologia digitalak ahalbidetzen dituen tokiko telebista guztiek lekua izatea, estatuan horrenbeste kanal izanik. Horregatik, tokiko esparrutik abiatzea erabaki zuten komunikazio-talde handiek estrategia aldatu behar izan dute, eta estatu mailan aritzea lehenetsi dute, kasu batzuetan, tokiko esparrutik alde eginez<sup>15</sup>.

## 5. ERREGULAZIO ALDAKETAK

Azken urteotan EAeko ikus-entzunezko arauketan izandako aldaketak gehitu behar dizkiegu aipatu bideragarritasun arazoei. Izan ere, Patxi Lopezen lan-taldeak<sup>16</sup> Ibarretxeren garaian onartutako dekretua (ikerlan honetan behin baino gehiagotan aipatutako 190/2006 Dekretua) indargabetzen duen arau berria onartu zuen 2011n, 231/2011 Dekretua.

Arauaketa berri horrek ez du zerikusirik aurreko legealdian egindako lanarekin, bereziki euskaren erabilerari buruzko alorretan. Emisio-lizentziak lortzeari begira, euskaraz (guztia edo zati bat) emititzea meritua da, baina ez betebeharreko baldintza. Era horretan, lizentziak eskuratuko dituztenek ez dute euskarazko gutxieneko portzentajerik bete beharko. Gainera, merituen artean

---

15. 2008ko azaroan Localia TV-ren jarduna (Prisa) etengo zela iragarri zen. Urtebete geroago, Vocentok KTB-Kate Berria, Álava 7 TV eta Durango TB ixtea hobetsi zuen.

16. PSEk lehendakaritza bereganatu zuen 2009ko hauteskundeak geroztik, PPrekin egindako akordioari esker.

azkena izango da, garrantzi gutxien daukan balorazio-irizpidea, beraz. Euskara-kuotaren sistema baztertu arren, euskarazko emisioentzat lizentzia gutxi batzuk gordetzen dira. Hala, 9. artikuluko 1. puntuan jasotzen denez, *“telebista-komunikazio zerbitzuaren lizentziak esleitzeko lehiaketetan, gutxienez lizentzia bat erreserbatuko da euskara hutsean emititzeko zerbitzu-eremu bakoitzean, betiere esleitu beharreko lizentzien kopurua hiru baino handiagoa bada”*. Hala ere, arauketaren testuak argitzen du baldintza hori bertan behera geratuko litzatekeela euskarazko proiekturik aurkeztuko ez balitz, eta, ondorioz, gaztelera-zko proiektuek eskuratuko litzuketela lizentzia guztiak.

Bestalde, ebaluazio-irizpideak ezartzeko ez da kontutan hartzen udalerrri bakoitzeko euskaldunen kopurua. Hortaz, errealitate soziolinguistikoari muzin egiteaz gain, dekretuak ez du euskarari hauspo emateko inolako neurririk biltzen. Hala, badira dekretu hau *“euskarizida”* dela salatu dutenak (Lasagabaster eta Zallo, 2011).

## 6. ONDORIOAK

**Eusko Jaurlaritzak EAEko tokiko telebistagintza digitala arautzerakoan egindako diseinuaren baitan ulertu behar da Hamaika Telebista egitasmoaren jaiotza.**

Digitalizazioarekin, emisio esparru zabalagoko eta gaztelania hutsezko telebista-eskaintzaren gorakada handia etorriko zela aurreikusiz, Eusko Jaurlaritzak tokiko telebistari oreka mantentzeko eginkizuna ematea erabaki zuen. Hala, 190/2006 Dekretuan, euskaraz aritzea eta gertutasuna lehenetsi ziren tokiko telebista digitalaren funtsezko betebeharrak gisa. Euskara hutsez emititzeak kasik automatikoki zekarren lizentzia eskuratzea, horixe baitzen lizentziak lortzeko lehiaketan gehien baloratzen zen irizpidea. Horrek, gerora, Hamaika Telebista izenez eza-gutzen dugun egitasmoak eskutatuko lizentzia guztiak eskuratzea ahalbidetu zuen.

Hala ere, esparru lokalean aritzea eta horrenbeste tokiko telebista martxan jartzea ez zen hasiera batean Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeko eragileek zuten nahia. Aukera izanez gero, esparru autonomikorako euskarazko telebista bakarra sortzeko asmoa zuten, baina, esan bezala, Eusko Jaurlaritzak aukera horri bide eman ez zionez, aurkitu zuten zirrikitu bakarra esparru lokalera ego-kitzea izan zen.

**Hamaika Telebistak ikus-entzunezko eduki eskaintza bakarra garatu du abiatutako kanal bientzako, programazioaren ardatza *prime time*an emititutako barne produkzioko informazio saioak eta berremisioak harturik.**

Aurrekontu, finantzabide eta baliabide txikiak tartean, Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeak martxan dauden bi kanalentzako (Hamaika Bilbo Telebista eta Hamaika Donostia Telebista) programazio bakarra osotzea erabaki du. Kanal bietan emititzen den seinalea beraz, berdina da, eduki batzuk Bilboko egoitzan eta beste batzuk, aldiz, Donostiakoan ekoiztu arren, programazio-taula bakarra baitago.

Programazio-taula hori eraikitzeko berriz, Hamaika Telebistak ikusle gehien dagoen ordu-tartean, bame produkzioko saioak lehenengo aldiz emititzea hobetsi du. Gehienak informazio eta kultur generoko programak dira eta bloke bat bailiran, hurrengo egunean, goizez, berremittitu egiten dira. *Stripping/Across-the-board* izeneko programazio-estrategia jarraituz, saio horiek ikustea hartzailleentzat ohitura bilakatzea nahi du Hamaikak, audientzia fidelizatzea, alegia (Arana, 2004: 159).

**Egungo testuinguruan, finkatutako hedapen-plana betetzea ezinezko zaionez Hamaika Telebistari, proiektua birplanteatu beharrean dago. Indarra hartu du telebista bakarra osatzeko joerak, non egoitza nagusi bat eta bigarren mailako beste batzuk bultzatzen ari diren.**

Nahiz eta Hamaika Telebistak 2007an hamar tokiko kanal sortzeko lizentziak lortu, bost urte igaro ondoren, bi telebista besterik ez ditu martxan jarri: Hamaika Bilbo eta Hamaika Donostia. Gainera, Donostiakoa ez da kanal berri eta autonomia, lurralde-ordezkaritza gisa baitihardu.

Nazioarteko krisi ekonomikoa dela medio, Hamaika Telebistak zailtasunak ditu diru-sarrerak lortzeko, eta hainbat kapital bilketa egin behar izan dituzte bi kanalen oinarrian dauden enpresek –Bilbo Handia Ikusentzunezkoak S.A. eta Donostialdeko Ikusentzunezkoak S.A.–. Hortaz, zaila dirudi epe labur edo ertainean gainerako zortzi kanalak abian jartzea.

Beraz, Hamaika Telebistak berriro aztertu behar du sortze-prozesuan zehaztutako hedapen-plana, ez baitago baliabide nahikorik hamar telebista ezberdin martxan jartzeko. Litekeena da, Donostian bezala, Gasteizen edo biztanle askoko barrutiren batean, bigarren mailako beste egoitzaren bat sortzea, baina programazio-taula bakar horren osagarri gisa. Azken finean, nolabait, sorrerako asmoa gauzatzen ari dira: autonomia-erkidego osorako euskarazko telebista bakarra sortzea.

Edonola ere, hauteskunde autonomikoek marraztutako Eusko Jaurlaritza berriak zer esan handia izango du hurrengo urteetan Hamaika Telebistak hartuko duen norabideari buruz. Alderdi politikoen jarrera erabakigarria izan zen Hamaika Telebista sortzeko, eta etorkizuna ere, besteak beste, jarrera horrek baldintzatuko du, euskararen alde egiteko nahiaren arabera. Izan ere, beharrezkoa da ikuspegi zabalagoa izatea eta marko legal orokorra zehaztea, alderdikeriak alde batera lagata. Arauketa horrek, batetik, gertuko hedabideak legitimatu beharko lituzke, eta, era berean, merezi duen garrantzia eman beharko lioke euskarari, normalizazio linguistikoaren mesedetan. Jada badira 30 urte euskarazko lehen irrati-telebista abian jarri zenetik, Euskal Telebista sortu zenetik, bai eta Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteak euskarazko lehen tokiko telebista, Arrasate Telebista, martxan jarri zuenetik, eta oraindik ere euskarari dagokion lekua eskaintzen dion eredu komunikatibotik urrun gaude, euskararen komunikazio esparruan, arrakastatsuak eta itxaropentsuak diren adibideak existitu arren, besteak beste, Debagoienan urteetan zehar garatu dena. Horregatik, interesgarria da euskarazko komunikabideek hizkuntzaren normalkuntzan betetzen duten funtzioan sakontzea, euskararen hiltun komunitateak behar duen eremu komunikatibo sendoa garatzeko.



Iker-lerro honen garrantziaren adierazle garbiak dira azken hilabetetan, euskarazko komunikazioan izan diren mugimenduak. Euskarazko hainbat tokiko aldizkariak esaterako, berriki Tokikom izeneko elkartea sortu dute. Eta bi urteko lanaren ostean, 2012ko azaroan, euskara hutsean lan egiten duten hainbat hedabidek Hekimen, Euskal Hedabideen Elkartea, aurkeztu zuten. Bertan euskarazko hedabideen sektoreko 50 eragilek hartzen dute parte, horien artean, Hamaika Telebista bera. Zalantza barik, hausnarketarako sortutako bide eta gune berri hauek ere arreta berezia merezi dute.

## 7. BIBLIOGRAFIA

- 190/2006 DEKRETUA, lurreko uhinen bidezko tokiko telebista-zerbitzua arautzen duena (EHAA, 202 zbk., 2006ko urriak 23, 20409-20435 or.).
- ARANA, Edorta (2004). *Programaziogintza irrati-telebistan*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- ; AZPILLAGA, Patxi; eta NARBAIZA, Bea (2003). Telebista lokalen panorama Hego Euskal Herrian. Zer, 15. zbk., 81-98 or.
- ARANGUREN, Asier (1999). Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian. Doktorego tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- BADILLO, Ángel (2003). La desregulación de la televisión local en España: el caso de Castilla y León. Doktorego tesia. Universitat Autònoma de Barcelona.
- BUSTAMANTE, Enrique (2008). *La televisión digital terrestre en España. Por un sistema televisivo de futuro acorde con una democracia de calidad*. Madril: Fundación Alternativas.
- CIES (2010-2011). Komunikabideetako entzulegoaren ikerketa. EAE metatua. 2010-2011. CIES, Iruña.
- COROMINAS, María; BONET, Montse; FERNÁNDEZ ALONSO, Isabel; GUIMERÀ, Josep Àngel; SANMARTÍN, Julián; BLASCO GIL, José Joaquín (2007). Televisión digital terrestre local (TDT-L) en España: los concesionarios privados. Zer, 22. zbk., 69-95 or.
- GÓMEZ RUBIO, Leire (2010). Análisis prospectivo de un modelo de proximidad: la televisión local en la Comunidad Autónoma Vasca ante la llegada de la TDT. Doktorego tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- GUIMERÀ, Josep Àngel (2011). Políticas de TDT y configuración del mapa televisivo autonómico digital en la Comunidad Autónoma Vasca. Zer, 31. zbk., 13-30 or.
- KANTAR MEDIA (2011). Anuario de audiencias de Televisión 2011, Kantar Media, Madril.
- MARZAL, Javier eta CASERO, Andreu (2009). Las políticas de comunicación ante la implantación de la TDT en España: balance crítico y retos pendientes. Sphera Publica, 9. zbk., 95-113 or.
- ORTEGA MOHEDANO, Félix (2009). La televisión de proximidad en España. Procesos concesionales, análisis de la población y PIB. Revista Latina de Comunicación Social, 64. zbk., 385-601 or.

## 8. LEHEN ESKUKO ITURRIAK

- ALTUNA, Gorka (2010). Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeko Administrazio Kontseiluan EKHEko ordezkaria. Sakoneko elkarrizketa. Bilbo, uztailaren 8an.
- ALZAGA, Iñaki (2010). Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeko Administrazio Kontseiluan CMNko ordezkaria. Sakoneko elkarrizketa. Bilbo, ekainaren 25ean.
- ASTORKIZA, Mikel (2010). Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeko Administrazio Kontseiluan Euskalteleko ordezkaria. Sakoneko elkarrizketa. Derio, ekainaren 25ean.
- LANDA, Juanjo (2010). Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeko Administrazio Kontseiluan Baintet ekoizpen etxeko ordezkaria. Sakoneko elkarrizketa. Aian (Gipuzkoa), uztailaren 15ean.
- LARRARTE, Joanmari (2010). Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeko Administrazio Kontseiluan EKTko ordezkaria. Sakoneko elkarrizketa. Andoainen, ekainaren 23an.
- SORS, Joxemari (2010). Hamaika Telebista Hedatzeko Taldeko Administrazio Kontseiluko Elkar taldeko ordezkaria. Sakoneko elkarrizketa. Donostia, uztailaren 9an.
- URIA, Iñaki (2010). Hamaika Telebistako Zuzendari Nagusia. Sakoneko elkarrizketa. Andoain, ekainaren 23an.
- ZALLO, Ramón (2011). Ikus-entzunezko Komunikazioko katedraduna E.H.U.n eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kontseilaria 2002-2009 urteren artean. Sakoneko elkarrizketa. Leioa, ekainaren 28an.